

EUSKAL OÑIA

Eusko-Ikaskuntzaren Batzarra

AUR EUSKALDUNAREN EGUNA
 Amaika gauza izan genun larunbategi Bergara'n. Amaika ez ezik amabi ere baitez esango genuke. Ta guzi-guzia aurkak egina, aur euskaldunak eta euskal tankeran.

Buruastetxo bat ba-generabilkien ordea, eta ar onek etzizun nunbait, gelaentzat atsegin iturri izan ziran dantza, abesti, irrintzi ta abarren zoragarritasun osoaz biotza lasaitzen utzi.

Onegatik, norbaitek, eguardean egindako jai utsak Andoain'go Eguna oso ura baño geigo balio zutela esan zigunean, ez genion ezer erantzun: ¡Andoain'en idatzitako eskutitz utsak ogei dantzari talderen biurriketak baño gelago ez ote dira ba!

Ona gure korapilloa: Etzale, gure fritzian, aurtxoan azterketak bear añaño garrantzirik ematen. Aur Euskaldunaren Eguneko mami, azterketa oetxek bear luteke. Ez larunbatean bezela asti gutxi eman... eta azterketa gela inguruan irrintzi, santso ta karrikak ta dantzan jardun.

Ala ere egin ziran azterketak, bai egin, itxumustuka ta larri xamar bada ere. Aurtxoak etzuten saririk jaso, epaileak nori zer eman erabakitzeo betarik izan etzutelako. Ostegunerako beren lara amaituko dute noski ta orduan azalduko degu ERABAKIA.

Aurtxo maitagarri aien jarduna bai goxo, lilluratzale, asegarría, Irakurketa jatorrik entzun zan antxe. Kristau-Ikasbidea, geok baño trebego dakite (guk ederki dakigularik). Idazten zer egin duten oraindik ez dakigu. Sari berezirako aurkeztutakoal bakarrik eskatu zitzairen. Ezpaziguten betik eman. Lutelesti ta Zenbakistia (Jeografi ta Arimetikan alegia) oso aurrera, ifiorik uste baño aurrerago gabiltza.

Esan deguna, Aur azterketak asieran umekeri jo bazitezken ere, ez gaurtik aurrera. Arretaz artu ta oarindaño erantzi izan diotegun baño, garrantzi aundigoa eman bearean gera.

¡Ta guk zer egin degun? Besteak egingo zigutela ta lasai egon, baño barkatu guri ere dainu degu ta.

LUZEAR

Ekin ta Jarrai

Azaldu da orregatik, gure garai bateko argazkia.

Oraintxe bidurtzen asia nitzan, William'ena baño len, Luzear'ek beste argazki itxusi samar bat argitaratuko ote zigun.

Lenengotan ederki zuritu gaituzu, adiskide, baño pixka bat gelago luzatu balu bildur bear. Ostiralean zortzi azaldu zenitun lerro aiek beintzat, igeltzeritzari luzetza lanbidez aldatzea erabaki zenula garbi zioten.

Zure eginbearra amaitu da ala ere, ta gure txanda izango da orain noski, bidezkoa ere ez da ta emakume batzarra izan eta oek artaz ez jardutea. Ia, Yolanda, zurea urrena, ez dezagun gure buruzagia gezurtaratu, zu ta ni berritsuenezaz jo gindun ta. Iru edo zazpi edo ez dakit nik zenbat artikuio idazteko aibat itz egin omen nuan alajafia. Bat eratzek ere lanik asko ematen dit bada. Zarautz'ko sabai aren ordez, biotz aberkoiarentzait ain oroiarri dan Ernio tantaia surretz aurre euki arren. Berez bear nunbait billabonatarra, ta Amasa mendiko basazaiaren billobari urri xamar iritxi billabonatasuna.

Elatz gudaritzan izena eman degun ezker ordea, ifioz ta ifiorik (Luzear'ek zion lez) eskubidea ta gaitasuna (ontatik batzun batzuek askorik ez badegu ere) ukatu ez digun elerti sallean, emakumeak salaitzen ekin bearean gera.

Ta ekingo diogu, bakoitzari atseginiago zaigun gataean, su ta gar eusko itxarkunde zoragarrian atzera gelditu naf ez degula adieraziaz. Ez bakarrik Zarautz'en bildu gifañak, baita juañ ezifnik edo bildurrez edo... azaldu ez ziranak ere.

Bildurrez, bai enotxoa, musu punta erakutsi ta gorde ostera. Neroni ere zerbait ikaritzen asi nitzan. ¡Ain izugarriak ote gaitun?, nion merekiko. Txurumuru'n arrasoak

uxatu genitula, Zarautz'en berriz otsok.

Ez zuan ordea zalantz onek luzaro irauin. Lasaitu zan gure barrena, lau uxu, alai ta pozik, nere ustez beintzat, inguruan egaka ikustean. Ta orduntxe lenengoz alkar ezagutzen gendularik ori. Asmo batek, nai batek bildu arazi gindun, ordea, ta batasunik sendoena, adixkidetasunik pozgarriena nabaitzen zan gure artean.

Aspaldiko ametsa nuan, naikide bat arkitzea, emakume bakarra gauza motza bai da. Gaur nere gogoa gafezka beteta dakust, Baten ordez talde begizko maitagarri, gura nezaken guragarriena arkitu det eta.

Agur, nere idazle laguntxoak, lenengo billera ortan sortutako adixkidetasuna, gero ta sendoago egiteari eman gaitezen, gure idazkien bidez elkarren berri maiz-maiz izanik.

IRA

Bidani'tik.

Aur zai

Seaskatxoan mutikotxo bat ementxen daukat ezitzen, ifion ote dan orren ederrik asko zait gogoratutzen.

Lau ortz txikidun zoragarria ¡nondik zera zu etorri ikusgarritzko begi urdin oik erakustera aitari?

Zuri begira ni arpegira ez naiz beñiere aspertzen ¡Zu zergaitan nere alboan zerade aserratutzen?

Ez negar egin nere potxolo oraintxen da ama etorriko titi goxoa zuretzat dauka ¡ote zera ixilduko?

Nañan eranda gero emango eitzean bustita papa ta aita txorekin, sendatutzean baserri aldera apaba.

Antxen dituzu ikusiko bal txori, ta txito taldeak tilin talanka postukozaitsu arditxoan joaleak.

Gero aunditzean maite ditzazu mendi bordako ardiak soro, barruti, zugaiz, lore, ta sasi tarteko kabiak.

Orduantxe bai postuko dala "Ama Euskera" benetan seme gelago bai daukalako Jaizkibel mendin ofetan.

IRUZUBI

Lezo'tik.

"Santitxo"

Bost urteko mutil potxolo bat da Santitxo: goizero oliuari arta aliak botatzen ikusten det ofutzik, begiak alai, arpegia garbi ta irriparez.

Makautzik, egun guztian dabil jolastan bere laguntxoekin: bero aundiak bai dira, ta ikastolak itxita daude: mazusta billa, tximeletan atzetik, irriyoan ofiak eta... jantzik bustitzen, soroan itulan ere noiztan bein ibiltzen da, belak zelastan zaitzen ere bai... ori da Santitxoren bizimodua uda garaian.

Arrituta egoten naiz orrelako mutil piskorren atera aldiak entzunaz: batzutan aur oiek edozein gizon utzitzen bai dute zer erantzun asmatu ezifnik!

Lengo egun batian gizon bat li zan nere errian: bazekarkiten gorputz illa lau mutill sendok apaiz jauna aurrian zutela: begira negoañ etxe aurrian lur emate oni: eskilla jotzen ari zan eliz-gizona, ezkil dardaritzu ta samingarría: Santitxo nere aldamenian zegoan, eta Elizako eskil aundiari begira bi begi ta sentzu guztiekin, esaten dit beiaunian joaz: "Zu, zu, munduan azkena itzen danari, ¡nork joko dio eskilla?"

ENDOYA

Gaitza Zabaldurik

"Osasune munduko ondasune" esan oi da eta osasunez Ataun'en makal gabiltz aurtzen.

Gregorio Deunaren eliz-barrutian udaberriari naparreri gaitza ibilli

zan, umien artean galguntza txarrak egiñaz. 1500 biztanle dituan Martin Deunaren eliz-barrutian aizkeneko amaika illabete oetan lau ume li dira eta 1.000 biztanle dituan Gregorio Deunaren eliz barrutian emere-tzi, geyenak urtez bekoak. Lanziturieta baserrikoak ziran iru eta Ubi-tarte'koak beste iru.

Martin Deunaren eliz-barrutian sukar ustel edo tifus zabaldu da. Eliz nagusi ondoan dauden berrogei etxietan Uztaillatik onera tifusekin gaxotu dira zortzi lagun.

Sukar ustela ur txarrak edadetik sortu oi dala diote. Ataur'go urak onen-onenetakoak dira. Iruereun mila peseta gastatu zituzten orain amar urte ur oyeek ekartzen. ¡Nundik edo nola sortu zaigu sukar ustel gaitza?

Agintari jaun zintzoak. Gaitzak ez beartsu ta ez aberatz ez mendeko ta ez agintarieri barkatzen die. Gaitz ori zabaltzerik nai ezpadezute eta batez ere zeren buuak gorde nai badituzate erabakiren bat artu bearean zerate.

AGAUNTZA

Ataun'dik.

Ataun

Gure erri ontara bestietara baño beranduxeago iristen dira gauza berriak eta esan leike, beste errietan ikusten degun euskerarenganako zalelasuna ere atzera xamar datorrela. Ez det esan nai gure erria guztietan azkena ibiltzen danik, ez ori ez, geok nai degun gauzetan gutxiak aurrea artuko digute. Jarraitu zaitogun asi geran bideari!

Neska talde batzuek badaude ama euskera gaixoa alde batera utzi ta erderaz mintzatzen diranak, baserriar batek zion bezela, orain amar urte txorroskilleroal besteri entzuten ez genion izkuntza darabilkitenak; oierie bada, oartxo batzuek egin nai nizkieke.

Erdei zale oiek gelenak, iruditzen zat beren burua ondo ikusteagatik erderaz mintzatzen dirala; baño oker zaudete, ez ezazute uste izan olakorik, bazenekite zuegatik askok eta askok zer esaten duten ez lizuteke ifiorik Ataun'en erderazko itzik entzungo.

Deun Martin da Deun Gregoriotarrak dira erdel zale oiek gelenak, eta bertako umeak ere zarragoak erderaz mintzatzen ikusita, bide berari eldu diote; orra neska tentel oien bearrak zer diran.

Aya da oraindik bertako guztiak euskera garbian mintzatzen diran tokia ta esan leike euskeraren etsarik ez sartzeagatik dagola dagoan bezela mendiz inguratua; baño orra ez dago etsai oientzako esirik, an izan nitzan batean (aspalditxo) antxen ziran etsai oiek ere barra-bayra txorroskilleroen izkuntza egiñaz, Mataporkera aldetik etorritako talde bat ziruditela. Beste guztiak euskeraz ta berak bakarrik erderaz itz egiñea lotsatu bear zuten, baño bai zera ori zan nunbait berak nai zutena, besteak ez bezela azaltzea.

Erruki ditut orrela dabilzanak, erruki det batez ere ama euskera gaixoa, oien esku balego laixter litzake lurperatua.

Euskera itzalleen izen beltz orren jabe egin nai ez badegu salatu gaitzen euskera pixka bat piztutzen Ataundar danok, zarak eta gazteak, sendagille, apaiz, nekazari, irakasleok danak bakoitzaren aldetik pixka bana jarriaz, ondoren datorlana zion seme-alabengandik erderazko itz bat ere entzun eto zuen mende dauden bitartean beartu euskeraz itz egitera.

GORRI-TXIK

Muebles

¡Los más sólidos! ¡Los más económicos!

Camas doradas y de hierro

"La Villa de Bilbao"

REINA REGENTE, 1 y ALDAMAR, 2 TELEFONO 1-07-55



VIDA RELIGIOSA

Santos de hoy:

Nuestra Señora de Covadonga.— Ss. Pedro Claver S. J. Sergio p.; Quereñmón. abogado, Doroteo Georgino, Jacinto, Alejandro, Tiburcio, Estratón, Rufino Rufiniano, mrs.

Santos de mañana:

Ss. Nicolás de Tolentino; Hilario, p.; Pedro, Salyo, Agapio, obs.; Pulqueria, emp., vig.; Menodora, Metrodora Ninfodora, hs., vgs., Bb. Carlos, Spinola, mrs.

JUVENTUD PARROQUIAL DEL BUEN PASTOR

Hoy martes a las ocho y cuarto de la noche tendrá lugar como de ordinario la conferencia semanal que esta Juventud organiza para los congregantes de la sección mayor y en la que les dirigirá la palabra el señor Vicedirector.

Se suplica desde estas líneas la mas nutrida y puntual asistencia.

EMILIA LECUONA

Ultramarinos finos, Estanco

Mayor, número 9

FUENTERRABIA

Carnicerías de José Gamborena

Calle Mayor (frente a la Iglesia) y calle Zuloaga.

TELEFONOS: 3 y 78.

FUENTERRABIA

DROGUERIA Y PERFUMERIA DE JUAN ROLANIA

SAN PEDRO N.º 12.

TELEFONO N.º 82.

FUENTERRABIA

SEGUNDO MARTINEZ

ULTRAMARINOS FINOS :—: CONFITERIA Y PASTELERIA ESTABLECIMIENTO PREDILECTO DE LA COLONIA VERANIEGA :—: SERVICIO A DOMICILIO

CALLE MAYOR, 15-17.

TELEFONO, 62.

FUENTERRABIA

LA ESPAÑOLA

GRAN COLECCION DE TARJETAS POSTALES

TIBURCIO BERROTARAN

CALLE MAYOR, N.º 4.

FUENTERRABIA

Banco Guipuzcoano

SAN SEBASTIAN

FUNDADO EN 1899

CAPITAL	25.000.000 DE PESETAS.
DESEMBOLSADO	12.500.000 "
FONDO DE RESERVA	12.500.000 "

Sucursal en FUENTERRABIA

SUCURSALES. — "BILBAO: Calle del Banco de España, 2. ANDOAIN, * AZCOITIA, AZPETTIA, BEASAIN, CESTONA, * DEVA, EIBAR, ELGOIBAR, HERNANI, * IRUN, MONDRAGON, MOTRICO, ONATE, OYARZUN, PLACENCIA DE LAS ARMAS, PASAJES, * RENTERIA, * SEGURA, TOLOSA, VERGARA, VILLABONA, * VILLAFRANCA, ZARAUZ, ZUMARRAGA Y * ZUMAYA.

* En edificio propiedad del Banco.

CUENTAS CORRIENTES

A la vista	2 1/2 %
Con ocho días de preaviso	3 %

LIBRETAS DE AHORRO

A la vista	3'50 %
------------------	--------

BONOS O IMPOSICIONES A PLAZO

A tres meses	3'50 %
A seis meses	4 %
A un año	4'50 %

EL BANCO GUIPUZCOANO realiza toda clase de operaciones de Banca, Bolsa y Cambio.

CAJAS FUERTES DE ALQUILER

propias para guardar alhajas, documentos, valores, etcétera.